

Alak eramango zaitu ala...?

Enara Azkue

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2001



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Alak eramango zaitu ala...?

Enara Azkue

Julene Azpeitia 14. ipuin lehiaketa

2001

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Enara Azkue (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Herenegun, atzo, gaur, bihar, etzi, etzidamu... Ez dago hitz berezi gehiago iraganiko egunak eta oraindik iragan ez direnak aipatzeko, baina horrek gutxi axola dizu, ez baituzu jakin ere egin nahi beste egun bat gehiago edo gutxiago iragan den, zuretzat egun guztiak berdinak baitira. Ez duzu jakin nahi, ez duzu beharrik hori jakiteko eta askotan horrek aske sentiarazten zaitu. Berdin da gaur atzo den edota bihar, berdin da gaur astelehena den edota larunbata. Berdin da elurra ari badu ere, edo ez, agian ez da berdin, jendea gehiago hunkitzen baita elurra mara-mara ari duenean zu lanean ikustean, baina, hala ere, kontuan hartzekoa da jende gutxiago irteten dela kalera, bere etxeak eskain diezaiokeen babes eta goxotasunaz gozatu nahian. Baina zuretzat berdin da! Gaurkoa beste egun bat gehiago baizik ez da eta arropa hautatzeko soilik begiratzen diozu zeruari egunero-egunero. Herenegun, atzo, gaur, bihar, etzi, etzidamu eta gainerako egun guztiak berdinak dira.

Gaur ere, egunero bezala, jendearen marmarrak esnatu zaitu eta egunero bezala zu noiz esnatuko zain esne katilua esku artean babestuz zuri so egoten den neskaxa ederra dago zure ondoan. Begiak zabaldu orduko irribarre zoragarri bat eskaini dizu, egunero bezala, eta ondoren musu bat eman dizu masailean, egunetik egunera gogorrago, hutsago topatzen duen zure masailean. Ondoren katilua eskaini dizu eta zuk, egunero bezala, esne katilukada trago batez zurrupatu duzu, katiluan bertan geratu diren tantak katuek egin ohi duten bezala mihiaz miazkatuz, esne tanta bat bera ere alferrik gal ez dadin. Ondoren katilua itzuli diozu irribarrez, bere eguneroko eskaintza eskertu nahian, eta, egunero bezala, neskaxa xarmangarria joan egin da etxera, bere amaren errietaren aurrean burua makurtzera, amari ez baitzaio gustatzen zuri esnerik ematea, ez emakume gaiztoa delako, zuri ematen dizun esnea bere alabaren gosaria delako baizik.

Amaren errieta aditzearekin batera goizeroko zure une zoragarria amaitu da eta lehen garrasiek adierazten dizute lanean hasteko ordua iritsi zaizula, egunero bezala. Gauza guztiak txukun-txukun jaso eta azokarantz hurbildu zara. Bertan igaro dituzu orduak eta orduak janari postu baten ondoan eserita, goizero esnez beteta egoten den eta zuk nahi baino azkarrago husten den katilu miazkatua aurrean duzula. Janari postuan dagoen emakumeak erdi ustelduta dagoen zerbait eman dizu eguerdi aldera, egunero bezala, eta zuk bere eskaintzari zure irribarrerik ederrenetarikoz erantzun diozu, hau ere egunero bezala, noski.

Egunero bezala. Berdin da zer gertatzen den munduan, berdin da zer eguraldi egiten duen, berdin da zerua urdin-urdin edo beltz-beltza egon. Zu egunero berdin zaude eta egun guztiak berdinak dira zuretzat. Jendearen zurrumurruari esker esnatu, katilukada bat esne edan guztiz maitemindua zauzkan neskatzaren irribarreari so, azokara joan, bertan egun osoa igaro, katilu zahar bat aurrean eta bere aurpegia eta gorputza guztiz estalita dituen janari postuko emakumea alboan dituzularik eta jendeak zure katiluan uzten dituen txanponei begiratu dendariak ematen dizun janari ustela janaz entretenitzen zaren bitartean. Beste ordu batzuetan bertatik mugitu ere egin gabe afganiarrek oso noizean behinka zer soinu ateratzen duten aztertu, soinuaren araberako irribarrea eskaintzeko zutaz errukitu den horri eta ilargiak zeruan bere nagusitasuna agertzen duenean bertatik jaiki, dendariari diru guztia eman eta horren ordainean ematen dizun janaria irentsi. Zure etxea atontzeko erabiltzen dituzun gauza guztiak jaso eta Bala Hissar eraikinaren ingurura hurbildu, herriko umeein, pixka batean bederen, errezatu ostean jolastu ahal izateko. Gainerako haurrak etxera afari legea egitera joan ostean zu zure bizitoki maitera, neskata xarmangarri horren txabolaren zure bazterrera.

Egunero bezala, zure etxea prestatu duzu txukun-txukun goxo-goxoa izan dadin eta zerura begiratu duzue loak hartu zaitu sabeleko hotsek indarge geratu eta horretarako parada eskaini dizutenean. Badakizu orduen iragaiteak berriz ere indartuko dituela une batez indarge geratu diren hotsak, baina horrek ez du axola, goiza iristeaz bat neskata xarmangarri horrek ekarriko dizun esne katilukadak eta bere irribarreak berriz ere eguzkiak adio esan arte isilduko baititu. Zure sabelak ez du gehiegi behar izaten baretzeko eta lasai egoteko, zuk ere zure destino petralak sortzen dizkizun arazo eta ezinegonak baretzeko eta lasaitzeko gehiegi behar ez duzun bezala. Gehiegi, edo ezer ez, agian, ez dakit zuk hori nola deskribatuko zenukeen, baina berdin da, gaurko eguna biharkoa bezalakoa izango da eta bihar ere ez duzu handinahirik izango, alferrikakoa baita zu bezalako batentzat handinahikeriarik izatea, baina, beno, horrek ez dizu aske ez sentitzeko ziorik ematen. Honek guztiak ere ez du axola, berdin da, gaurko eguna ere biharkoa bezalakoa izango da, bihar ere gaur izango da zuretzat.

Badirudi egunak argitu duela, badirudi berriz ere eguzkia ilargiari gailendu zaiola zure etxearen sabaian. Gaur ere jendearen marmarrak esnatu zaitu, egunero bezala, eta, egunero bezala, zu noiz esnatuko zain esne katilua eskuan zuri so egoten den neskata ederra dago zure ondoan. Begiak zabaldu orduko irribarre zoragarri bat eskaini dizu, egunero bezala, eta ondoren musu bat eman dizu masailan, atzo baino gogorrago, hutsago topatu duen zure masailan. Ondoren katilua eskaini dizu eta zuk, egunero bezala, esne katilukada trago batez zurrupatu duzu, katiluan bertan geratu diren tantak katuek egin ohi duten bezala mihiaz miatzatuz, esne tanta bat bera ere alferrik gal ez dadin. Ondoren katilua itzuli diozu irribarrez, gaurko eskaintza eskertu nahian, eta, egunero bezala, neskata xarmangarria joan egin da etxera, bere amaren errietaren aurrean burua makurtzera, amari ez baitzaio gustatzen zuri esnerik ematea, ez emakume gaiztoa delako, zuri ematen dizun esnea bere alabaren gosaria delako baizik.

Amaren errieta aditu duzu, egunero bezala, eta gauza guztiak jaso ondoren azokarantz hurbildu zara, lanean hasteko ordua iritsi baitzaizu. Aurpegia inoiz ikusi ez diozun emakumearen ondoan eta katiluaren atzean eseri zara. Gaur ere afganiar batzuk jasoko dituzu, ondoko emakumeak janari

usteldua emango dizu bere borondate guztiarekin eta ilargia agertu orduko sabela ahalik gehien bete eta azkar-azkar joango zara erreztatza, gero inguruko haurrekin pixka batean jolastu ahal izateko. Gaurko eguna ere atzokoa, herenegungoa, biharkoa, etzikoa, etzidamukoa bezalakoa izango da zuretzat.

Katiluari begira eserita zaudelarik egunerokoa ez bezalako giroa sumatu duzu. Ez dakizu zer gertatzen ari den, baina jendea oso pozik dagoela dirudi, badirudi baduela zerbait ospatzeko eta harritu egin zara, ziur baitzaude duela gutxi ospatu dela hirian urtero-urtero abuztuaren 18an ospatzen den Independentziaren Eguna. Ezinezkoa iruditu zaizu jada hainbeste denbora iragan izana, ez baituzu negua sumatu ere egin eta oraindik ere egun hartan zeneramatzan arropak ez zaizkizu hain txiki geratu. Beraz, gaur abuztuaren 18a izatea ezinezkoa da. Beste zerbait gertatuko zela pentsatu duzu, baina ez zaizu gehiegi axola, zerbait ona gertatzen denean zugar ez baitu eraginik izaten, baina, noski, zerbait txarra gertatzen denean zu zara gertaera horren ondorioak hasiera hasieratik pairatzen dituen. Orain arte ez duzu ezer txarrik nabaritu eta, beraz, gertatzen den hori ez zaizu axola eta eserita katiluari begira geratu zara berriz ere, egunero bezala.

Baina orduak aurrera egin ahala egunero-egunero kalea betetzen duen azokan jende zoriontsua baizik ez duzu ikusten eta burua jaso eta egunero janari ustelen bat oparitzen dizun emakumeari begiratu diozu gertatzen denari buruzko azalpenen bat eskatuz. Berak goxoki hartu dizu eskua eta Estatu Batuak erasotu dutela esan dizu. Zuk berriz ere burua makurtu duzu katiluari begira eta emakumeak kontatu dizunari buruz hausnartu duzu.

Estatu Batuak erasotua izan da eta milaka eta milaka pertsona hil dira, zer ote dago albiste horren atzean bertako jendea hainbeste pozteko? Zuk ez duzu ezer ulertzen eta emakumeak oparitu dizun usteldu gabeko janaria jan duzu. Badirudi emakume hori ere albisteak poztu egin duela, bestela ez bailizuke inola ere usteldu gabeko edo saltzeko moduko janaririk oparituko. Badirudi gaurkoan jendearentzat albiste ona izan den horrek zugar ere eragin duela, behingoz behintzat albiste on batek eragin onen bat du zugar. Jende guztia pozik dago kalean eta inoiz baino afganiar gehiago eman dizkizute gaurkoan, agian bihar jai egin dezakezu, katilua ia beterik baitago.

Gaurkoa ez da beti bezalako eguna, gaur zerbait ona gertatu da hemen, nahiz eta beste herrialde batean, zuk non dagoen ere ez dakizun lurralde batean, ez den pozteko arrazoirik egongo.

Katilua beterik daukazu, emakumeak janari ona eman dizu eta hainbeste jende dagoenez ia inor ez da jada ohartzen zu hor zaudenik, beraz, jaiki eta erreztatza joatea erabaki duzu. Gaur ere lehen-lehenik amari hitz egin nahi diozu. Beti berandu joaten zarenez lotan egoten da ama, baina gaurkoan goiz zoaz eta berak erantzungo dizun esperantza duzu. Agian lanean ariko da hor nonbait, baina zurekin hitz egiteko ez dauka lana utzi beharrik eta gaur zure eguna dela sentitzen duzu. Gainera amari esango diozu lasai egoteko, ongi bizi zarela, edota bizi zarela bederen. Aita herria defendatzera joan dela esango diozu, zuk gerra gehiagorik ezagutu ez dezazun alde egin behar izan duela armak erabiltzen ikasi eta ondoren bere lagunekin etsaia betirako garaitu dezan. Amak orduan negar egingo du, aita laster itzuliko dela esango dizu eta zuk aita zein ausarta den kontatuko diozu. Bide batez gaurko albistea kontatuko diozu, bera ere azokako jendea bezainbat pozteko dela iruditzen

baitzaizu, aitarekin batera askotan jardun baitzuen amak estatubatuarren aurka hitz egiten. Gero agur esango diozu eta beste hurrekin jolastera joango zara.

Gaur amarekin hitz egin ahal izango duzu eta aukera hau ez duzu egunero izaten, beraz, gaurkoa ez da besteak bezalako eguna, gaurkoa oso egun berezia da. Iritsi zara meskitara, baina bertan dagoen zurrumuruak harritu zaitu. Jendea ez da errezatzen ari, hitz egiten ari da eta hori ez da ohikoa leku sakratu honetan. Maiteminduta zauzkan neskatxaren aita ikusi duzu bazter batean, beti serio-serio ikusten duzu, baina gaur bera ere pozik dago eta alabak aitaren irribarre bera duela ikusi ahal izan duzu. Berarengana abiatu zara gaurko eguna besteak bezalako ez izatearen zergatia galdetzera.

Goizero-goizero esnea ematen dizun neskatxaren aita besotan hartu zaitu, zure harriduraz berehala konturatu baita. Kanpora atera zaitu eta Estatu Batuetan gertatu dena kontatu dizu. Zuk adi-adi entzun diozu, baina azokan ere berak kontatu berei dizuna kontatu dizutela jakinarazi diozu. Orduan estatubatuarren botere nahiaz hitz egin dizu, herri horrek mendez mendez eta lurraldez lurralde egin dituen basakeriez eta azkenean zure destino petralaren erantzule bakarra bera dela esan dizu eta zuk non dagoen ere ez dakizun lurralde horri gertatu zaiona Alaren zigorra izan dela kontatu dizu. Zuri eta zu bezalako beste hainbati egin dien guztiaren erantzule direnez gero, Alak zigortu egin dituela. Beraz, badirudi zuk ere pozteko arrazoiak dituzula eta poztu egin zara, gertatzen dena ongi ulertzen ez duzun arren, Alak beti gauza guztiak ongi egiten dituela bai baitakizu.

Meskitatik irten eta hurrekin jolastera joan zara, egunero bezala, baina haur guztiei helduen pozak eragin diela nabaritu duzu, beraiek ere Estatu Batuetakoa omen den banderarekin jolasean ari baitira. Lehenik haur guztiek lurrean jarri duten banderaren gainean saltoka jardun dute, ondoren isurkariren bat duen ontzian sartu dute eta azkenean pospoloak hartu eta su eman diote. Suak iraun duen bitartean haur guztiek pozik jardun dute saltoka eta kantuan banderaren inguruan. Haietako haur batek esan dizu bere aita eta lagunek ere gauza bera egin dutela gaur eta beraiek bandera hori topatu dutenean horixe egitea erabaki dutela. Bandera guztia erre denean mutiko batek beltza, txuria eta berdea den bandera atera du, leku askotan txintxilik ikusten duzun bandera eta berau astintzen egon dira. Zuk ez duzu salto gehiegi egin nahi, katiluan daramazun dirua eroriko zaizun beldur baitzara eta azkenean gaur inork jolasteko asmorik ez duela ikusirik zure etxera joatea erabaki duzu.

Gauero bezala zure etxea atondu duzu, gaurko eguna besteak bezalako ez izan arren inork ez baitzaitu etxean hartu. Alari otoitz egin diozu bihar ere herrian gaur bezalako poztasuna zabal dezan, bihar ere gaur izan dadin. Hartara bihar ibaira joan ahal izango duzu baina bat hartzera, jada zure gorputzari zikin eta ustel usaia baitario alde guztietatik. Bihar ere argituko du egunak, egunero bezala, eta bihar jendearen zurrumuruak esnatzen zaituenean zuk egingo duzu irribarre neskatxa xarmangarriak esnea nola edaten duen ikusiz eta amaitzen duenean musu bat emango diozu bere masail ederrean.

Berriz ere zure etxearen sabaian eguzkia gailendu da, jendearen zurrumurrua inoiz baino ozenagoa da eta esne katilua eskuetan zuri so dago zure ametsetako neskatxa. Bart zure sabelak soinurik egin ez zuenean esnea berak nola edaten duen ikusteko nahia sentitu zenuen eta esnea eskaini

dizunean ezetz erantzun diozu, gaur ez duzula esnea edateko beharrik, baduzula diru apur bat eta berak edateko, gaurkoan berak behar handiagoa izango duela zuk baino. Eta hala egin du, berak edan du eta zuk irribarrez begiratu diozu edan duen bitartean. Katiluan esne tanta batzuk baino geratu ez direnean katilua eman dizu, katuek bezala katilua miazka dezazun eskatuz. Eske hori onartu egin duzu eta irri artean bete duzu bere nahia. Amaitzean musu bat eman diozu bere masail ederrean.

Esnea amaitu denean ez joateko eskatu diozu. Gaur ez duzula lanera joateko beharrik azaldu diozu eta berak zurekin geratzea erabaki du. Etxea jaso eta azokarantz hurbildu zarete eskutik helduta. Azokan egunero zure ondoan orduak eta orduak igarotzen dituen emakumearengana hurbildu zarete eta usteldu gabeko janaria erosi diozue. Ezin izan diozu aurpegia ikusi, baina barre nola egin duen nabaritu ahal izan duzu. Behin bada ere bere begiak eta ezpainak ikusi nahiko zenituzke, baina oraingoz sentitzearekin soilik konformatu beharko duzu.

Erosketak egin ostean ibai ingurura hurbildu zarete eta txoko batean eseri zarete. Jolasean ibili ondoren bainu bat hartu duzue eta ez nolanhikoa gainera. Eraman duzuen janaria jan eta zuen amez hizketan jardun duzuen arratsalde osoan. Zuk zure ama nolakoa zen, zein ona zen... kontatu diozu eta berak eguneroko errietaren berri eman dizu, zuri lanera joateko garaia iritsi zaizula iragartzen dizun errietaren berri. Gaur ama hil baino lehen bizitzaz gozatzen zenuen modu berean gozatu duzu eguna. Gaur zure irribarrea ez da eskerrak emateko irribarrea izan, zure poztasunaren isla baizik. Gaurkoak lehengo egunak dakarkizu gogora.

Eguzkia bere azken izpiak igortzen hasi denean etxera itzultzeko prestatu zarete. Bidea lasai-lasai egin duzue, guztia betirako gorde nahiko bazenute bezala, gaurko egun zoragarri honen azken segundoa ere dastatuz, oroimenean guztia ongi barneratu nahian bezala. Baina azkenean iritsi zarete zuen etxera eta horrek bihar goizaldera arte elkar agurtzera zaramatzate.

Etxearen atarira iristean bere gurasoak eta anaia txikia kanpoan topatu dituzue. Bere gurasoen aurpegiek ez dute atzoko eta gaur goizeko zorientasuna islatzen eta beraiengana gerturatu bezain laster berari zerbait esan diote, zuk ezin ulertu izan duzun zerbait, bere gurasoek eta berak, zuk ez bezala, herrialdeko bi hizkuntza ofizialak ezagutzen baitituzte. Etxean pashtoa eta dari persiera erabiltzen dituzte eta zure amak pashtoa irakasteko denbora baizik ez zuen izan. Beraz, beraien aurpegietan sumatu ahal izan duzu zerbait gertatzen dela, baina ez dakizu zer den. Ondoren guztiak zugana hurbildu dira eta aitak azaldu dizu estatubatuarrek Kabul bonbardatzeko asmoa dutela bertan gertatu denagatik.

Zuk ez duzu ezer ulertzen. Ez duzu ulertzen zergatik bonbardatu nahi duten zure hiria, zergatik hil nahi duten bertako jendea, zergatik batzuek jendea hiltzeko eskubidea duten, zergatik...

Baina zuk ezer ez ulertu arren hori guztia gertatu egingo da.

Familia guztiarekin Pakistanera joateko asmoa duela esan dizu hainbeste maite duzun neskatxaren aitak, bertan geldituz gero bizirik irauteko aukerak oso txikiak direlako. Zorte ona opatu dizu eta bere bi haurrak asto gainean jarri ondoren agur esan dizu familia guztiak. Agur betirako.

Berriz ere bakarrik geratu zara. Ama bizi zen artean familia ederra osatzen zenuten amak, aitak eta zuk, baina ama hil ostean aitak herriaren alde zerbait egiteko garaia iritsi zitzaioala argudiatuz alde egin zuen zu bakarrik eta kale gorrian utziz. Beti esan izan zizun itzuliko zela, baina ez zen inoiz itzuli. Oraingoan behintzat badakizu ez direla itzuliko, badakizu ez dizutela gezurrik esan.

Gauero bezala zure etxea atontzeari ekin diozu, baina gaur ezusteko batekin egin duzu topo. Zure etxea atontzen duzun bazterrean hiru katilu topatu dituzu, hirurak esnez beteta. Laugarrena zuk gainean eraman duzu gaur ere, lanera ez joatea erabakia zenuen arren, eta etxean zituzten hiru katiluak bete ditzizute goizero hartzen duzun esnearen faltarik suma ez dezazun, hiru egunez bederen.

Bazenekien zuk jendearentzat onak ziren gauzek ez zizutela inoiz zuri ezer onik ekarriko eta gaur garbi geratu da gauza txar guztiek zugan eta zu bezalakoengan eragiten dutela beti. Askok eta askok bertatik alde egingo dute, dela Pakistanera, dela Iranera, baina zuk, sei urteko haurrak, ez duzu bertan geratu beste erremediorik. Ezin duzu inola ere bakarrik Pakistango mugara iritsi eta hara iritsiz gero ere ez zenuke zer janik edukiko, ez zenuke dirua eskatzerik izango, han inork ez baitu ez dirurik, ez janaririk izango.

Etzan eta zerura begira jarri zara. Alari biharko eguna lanerako egun arrunt bat izan dadila eskatu diozu.

Gaurkoan ez zaitu jendearen zurrumurruak esnatu, jendearen mugimenduak baizik. Hiri osoa husten ari da, astoak eta gameluak lagun jende guztiak bere etxea hustu du eta badoa Kabuletik.

Zu gaur Kabul en zaude. Bihar ere Kabul en egongo zara. Etzi ere Kabul en egongo zara...

Jende asko badoan arren zuk zure eguneroko martxarekin jarraitzea erabaki duzu. Etxea txukun-txukun jaso eta azokarantz hurbildu zara. Baina azokan ez dago inor. Guztiek alde egin dute azokatik. Hara ere, zu zure lekuan eseri zara katilua aurrean duzularik. Kanean ez dago inor, noizean behin norbait igarotzen da Pakistana iristeko asmoz eta errukiz begiratzen dizu dirurik eman ezin duzula esanez.

Hirian jende pixka bat gelditu da. Hauek ere, zuk bezala, ez dute Pakistan edota Iran aldera ihes egiteko asmorik. Batzuek ez dute beren etxea utzi nahi, ez daude prest amore emateko, eta beste batzuek ez dute mugaraino iristeko indarririk edo baliabiderik. Baina guztiak beren etxeen aurrean zuloak egiten ari dira. Gizon bat bere hiru semeekin ari da lan hau burutzen eta berarengana hurbildu zara zertan ari den jakiteko asmoz. Berak azaldu dizu trintxera bat egiten ari dela bonbardaketa hasten denean bere familia bertan ezkutatu eta babesteko. Irribarre maltzur batek ezpainetatik ihes egiteaz bat Bushen bunkerra bezain ona ez dela izango esan dizu. Zuretzat lekurik duenentz galdetu diozu, baina begiak malkoz busti zaizkionean erantzunaren zain gelditu gabe joan egin zara.

Bihar goizean zu ere trintxera bat egiten hasiko zarela erabaki duzu.

Berriz ere iritsi da gaua. Gaur ez duzu dirurik bildu, ezta janari ustelik jan ere. Ez duzu bertatik mugitzeko ez indarririk, ez adorerik eta bertan geratu zara egun berri baten zain. Biharkoa ere gaurkoa bezalako eguna izango da zuretzat.

Gauerdi aldera gizon batek iratzarri zaitu. Beldurtu egin zara eskuan pistola ikusi diozunean, baina ez dizula ezer txarrik egingo esan dizu, lasai egoteko. Lasaitu zarenean umezurtza zarenentz galdetu dizu eta zuk ama hila dagoela, baina aita herria defendatzera joana dela erantzun diozu. Zuk ere aitak bezala zure herria defendatu nahi duzun galdetu dizunean bi aldiz pentsatzeko betarik hartu gabe baietz erantzun diozu. Jaiki, zure etxea bertan utzi eta eskutik helduta joan zara zure aitaren ametsa betetzera, zure aita hilik badago ere zuk familiaren ametsa betetzeko ahalegina egingo duzula pentsatuz.

Goiza iristeaz bat zure inguruko gizon, gazte eta haurrak esnatu egin dira eta banaka-banaka esne katilukada bat edatera joan dira. Ez dakizu non zauden, inguru horietan ez baitzara inoiz ibili, baina zer axola dio orain horrek. Zuk helburu bat duzu eta helburu hori bete behar duzu.

Esnea edan bezain laster gizon bat hurbildu zaizu eta pistola bat eman dizu. Pistolarekin kontuz ibil zaitezen eskatu dizu eta berari kasu egiten badiozu ongi erabiltzen ikasiko duzula esan dizu. Zuk adi-adi jarraitu dituzu bere azalpen guztiak eta ondoren praktikak egitera eramane zaitu. Han beste haur batzuk ere badaude eta haiekin aritu zara bazkal ordura arte agindu dizuten guztia egiten. Dagoeneko ikasi duzu nahiko ongi tirokatzen eta arratsaldean bonbak nola egiten diren irakatsiko dizutela esan dizute.

Bazkalondoan beste haurrekin jolasean aritu zara pixka batean, gerretara noski, eta arratsaldean bonbak nola egiten diren ikasi duzu.

Iritsi da gaua eta baita otoitz egiteko ordua ere. Korana eskuetan eta beltz, txuri eta berdez margoturiko kartoi pusketan batean itsatsiriko gizon bizardun baten argazkia atzean dituela gizon bat jihad-ari buruz mintzo da, baita Alari buruz ere. Estatu Batuek zuek erasotzen bazaituzte ez zaretela geldi egongo eta Alaren laguntzaz erasoei aurre egingo diozuela dio. Bakoitzak duen guztia eman behar duela Estatu Batuen eraso terroristari aurre egiteko. Estatu Batuak merezi zuen zigorra baino ez duela jaso. Erasotzailea behingoz erasotua izan dela eta Alak estatubatuarrak horrela zigortzea erabaki badu ez dela izan funtsik gabeko gutzia bat aurrera eramatearren, Alak beneko zigorra merezi duena baizik ez baitu zigortzen.

Denbora asko egon da isildu ere egin gabe eskuan Korana daraman gizona eta behin eta birritan aipatu du Alaren boterea. Alak jihad-a eskatzen duela dio, zuek zuen lurra, zuen ideologia, zuen sinismena, defendatu behar dituzuela beraren laguntzaz. Eta beraren laguntzaz jihad-a irabaziko duzuela.

Ongi oroitzen duzu aitak zuen herria defendatzeko beharra sentitzen zuela aipatu zizun eguna. Luze jardun zitzaizun hizketan Alaz, Koranaz, gerra santuaz, askatasunaz... Gaur, berriz ere hitz horiek aditzean, inoiz baino ziurrago eta alaiago sentitu zara. Aitaren ideia berak defendatuko dituzu eta zuen garaipenari esker gainerako haurrek ez dituzte zuk pairatu behar izan dituzun miseriak ezagutu ere egingo. Beraiek ez dute gerrarik ezagutuko, zuek etsaia betirako garaituko baituzue. Zuen gerra ez da ilargiaren eta eguzkiaren arteko borroka bezalakoa izango, etsaia mendean hartuko baituzue betirako. Hori da aitak esaten zizuna eta hori da Alaren botere eta laguntzaren bidez gertatuko dena.

Estatu Batuen erasoaren zain zaude. Jihad-aren zain zaude. Ez dakizu noiz gertatuko den, baina ez dizu axola. Etorriko da eraso, gaur, bihar, etzi edo etzidamu, eta zu prest zaude aurre egiteko, prest zaude zure herria defendatzeko, prest zaude Alak hala erabakitzen duenean amarengana joateko, eta baita, agian, aitarengana ere. Aita dagoeneko amarekin egon daiteke. Zu laster egongo zara beraiekin. Gaur, bihar, etzi, etzidamu, ez dakizu noiz, baina badakizu ez zaizkizula egun asko geratzen. Alak eramango zaitu beraiengana.

Alak eramango zaitu ala Estatu Batuek?